Langileek 30 opor egun izango dituzte: 20 lanegun udan, be-raz, lanaldi trinko/jarraituko aldiaren barruan, eta beste hamar lanegun. Langile bakoitzak hamar egun horiek beste aldi batean hartzea itundu ahal du zuzendaritzarekin, betiere Fundazioa-ren beharrek ahalbidetzen badute eta horretarako eskaera egin ondoren.

Oporrak hartzeko, aste batean edo bestean lan egingo du-ten taldeak sortuko dira. Fundazioaren arlo bakoitzean gutxie-neko langileak egon beharko dira uneoro.

Udako oporren egutegia Gertuan Fundazioak egingo du, hi-zarmena indarrean dagoen urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen egindako eskaerak kontuan hartuta. Adostasunik ez ba-dago, Gertuan Fundazioak diseinatuko du.

Hala ere, ordutegiei buruzko aurreko puntuan bezala, arlo bakoitzaren premiak direla-eta, oporrak banaka beste aldi ba-tzuetan baliatzea erabaki ahal izango da, Zuzendaritzari eskae-ra egin ondoren.

### 14. Erretiroa.

Erretiratzeko adina zerbitzuaren izaerak gomendatzen due-naz haratago luzatzen dela saihesteko ahalegina egingo da, be-tiere une bakoitzean indarrean dagoen legediak onartzen due-naren barruan.

Era berean, errelebo-kontratua erabili ahal izango da lege-riak horretarako aukera ematen duen bitartean eta hala eska-tzen duten pertsonen aplika dakiekeen bitartean, baldin eta Zu-zendaritzaren iritziz posible bada Gertuan Fundazioarentzat ko-menigarria izan daitekeen formula bat aurkitzea ordezkatutako pertsonak lan egin behar dituen orduak lan egiteko, eta betiere ordezkoari kostu ekonomiko gehigarriak eragiten ez badio.

### 15. Baimenak.

Aldez aurretik abisatuta eta justifikatuta, lanera ez joateko eta ordainsariari eusteko eskubidea jarraian zehazten diren arra-zoiengatik eta denbora-tarteetan baliatuko da:

- Egutegiko 18 egun ezkontzaren kasuan, edo izatezko bi-kotearen kasuan, legeak formalki eratzutaz jotzen duenean.
- Seme-alaben jaiotzagatik, egutegiko hiru egun.
- Egutegiko bost egun seme-alaben, ezkontide edo biko-tekidearen, anai-arreben eta ezkontide edo bikotekidearen gu-rasoen (langilearena zein ezkontide/bikotekidearena) heriotza-gatik, gaixotasun larriagatik edo ebakuntza kirurgiko larria egite-ko ospitaleratzeagatik edo etxean atsedean hartzea eskatzen duen kirurgia handi anbulatorioa egiteagatik, betiere agiri bidez justifikatuta.

Ondorio horietarako, ospitaleratzearen kasuan, langileak ai-patutako egunak hartu ahal izango ditu, ondoz ondo eta ospita-leratze-aldiaren edozein unetan.

d) Laneguneko bi egun, aitona-amonen eta ezkontzako anai-arreben heriotzagatik, gaixotasun larriagatik edo ebakun-tza larriagatik ospitaleratzeagatik.

Mensualmente se llevará un control de las horas realizadas fuera del horario, que en lo posible serán objeto de planificación previa, así como de su recuperación, procurando que el ajuste sea salvo excepción dentro del mismo mes. En este caso, se podrá pactar con la dirección el disfrute de estas en otro perío-do siempre y cuando no se solapen con períodos de vacaciones y de acuerdo con el correcto funcionamiento del servicio.

— Horarios específicos.

Podrá pactarse individualmente con previo acuerdo con la Dirección una distribución de la jornada en horarios adaptados a las necesidades a cubrir y de cara a dar la mejor cobertura po-sible a las personas a las que apoyamos.

### 13. Vacaciones.

El personal disfrutará de 30 días laborables: 20 días labora-bles en periodo estival, por lo tanto, dentro del periodo de jorna-da intensiva/continua, y el disfrute de 10 días laborales que se podrán pactar individualmente con la Dirección en otro período diferente, si las necesidades de la Fundación lo permiten, previa solicitud cursada a tal efecto.

Para el disfrute de los períodos vacacionales se realizarán equipos que desempeñarán indistintamente el trabajo una/s u otra/s semana/s, debiendo existir en todo momento la cobertu-ra de unos mínimos en cada área de la Fundación.

El calendario de vacaciones estivales lo elaborará Gertuan Fundazioa en atención a las solicitudes cursadas antes del 31 de marzo de cada año de vigencia del convenio. A falta de acuerdo, este se diseñará por parte de Gertuan Fundazioa.

Ello, no obstante, al igual que en el punto anterior referido a los horarios, por necesidades de cada área se podrá pactar in-dividualmente previa solicitud cursada a tal efecto a la Direc-ción del disfrute de los períodos vacacionales en otros períodos.

### 14. Jubilación.

Se procurará evitar que la edad de jubilación se prolongue más allá de lo que razonablemente aconseja la naturaleza del servicio, siempre dentro de lo que permita la legislación vigente en cada momento.

Se contempla asimismo la posible utilización del contrato de relevo mientras la Legislación lo permita y sea aplicable a los casos individuales de las personas que lo soliciten, siempre que sea posible a juicio de la Dirección buscar una fórmula que in-terese a Gertuan Fundazioa para la realización de las horas que la persona relevada deba prestar y siempre que no suponga un coste económico añadido para ésta.

### 15. Permisos.

La ausencia al trabajo con derecho a remuneración, previo aviso y justificación, obedecerá a los motivos y durante el tiem-po que a continuación se relaciona:

- 18 días naturales en caso de matrimonio, o en el de pa-reja de hecho cuando la ley la considere formalmente constituida.
- 3 días naturales por nacimiento de hijo.
- 5 días laborables por fallecimiento, enfermedad grave u hospitalización con intervención quirúrgica grave o cirugía ma-yor ambulatoria que precise de reposo domiciliario, cada una de ellas justificada documentalmente, de hijos, cónyuge o compa-ñero/a, hermanos, y padres de uno y otro cónyuge o compa-ñero/a.

A estos efectos, y en el caso de hospitalización, el trabajador podrá disponer de los mencionados días, de manera consecutiva y en cualquier momento dentro del período de hospitalización.

d) Dos días laborables por fallecimiento de abuelos o her-manos políticos.

e) Aitona-amonen edo koinatu-koinaten gaixotasun larriagatik edo ebakuntza kirurgiko larriagatik, bost lanegun.

f) Egutegiko egun bat, ohiko etxebizitzaz aldatzeagatik.

g) Egutegiko egun bat odol-ahaidetasunezko eta ezkontza-ko seme-alaben, gurasoen eta anai-arreben ezkontzagatik.

h) Egutegiko egun bat seme-alaba baten edo biloba baten bataioagatik edo jaunartzeagatik.

i) Osakidetzako kontsultara joateko behar duen denbora, bai lehen mailako arretako medikuarenera bai espezialistarenera, baldin eta lanorduetatik kanpo joan ezin bada. Familia-medikuarenera joanez gero, langileak medikuaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, ordutegia zehaztuta, kontsultara benetan joan dela ziurtatzeko.

Espezialistarenera joanez gero, langileak kontsultara joan izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du, ordutegia zehaztuta.

c), d) eta f) puntuetan azaldutako kasuetan, egutegiko egun bat gehiago eskatu ahal izango da, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo joan behar bada.

j) Azterketa ofizialetera joateko behar duen denbora; dena den, horrek ez du hitzartutako urteko lanaldia murriztea ekarriko.

#### 16. Ordaindu gabeko baimenak.

Plantillan gutxienez urtebete daramaten langileek ordaindu gabeko baimena eskatu ahal izango dute norberaren kontueta-rako, honako egoera hauetan:

a) Hiru hilabete, gehienez ere, ezkontidearen edo bikotekidearen, seme-alaben, anai-arreben, ezkontide/bikotekide baten edo bestearen gurasoen eta aitona-amonen gaixotasun larriagatik edo ospitaleratzeagatik.

Epe hori sei hilabetera arte luzatu ahalko da, Zuzendaritzaren iritziz horretarako arrazoiak badaude.

b) Urtean gehienez hamar egun, Zuzendaritzaren iritziz arrazoi justifikatutako beste arrazoi pertsonal batzuenagatik.

c) Arrazoi pertsonalengatik, Zuzendaritzak eskaera eragin duen arrazoiak ebaluatu beharrik gabe, urtean gehienez bost egun emango dira automatikoki, betiere honako baldintza hauek bete-tzen badira:

— Plantillan bi urte baino gehiagoko antzinatasuna izatea.

— Idatziz eskatzea, gutxienez hamabost egun lehenago.

— Fundazioaren arlo bakoitzeko pertsona batek baino gehia-gok ez eskatzea, ez eta plantillaren % 10ak baino gehiagok ere.

Artikulu honetako bajak betetzeko kontratatzen diren langi-leak bitartekoak izango dira.

Egin beharreko kenketa kalkulatzeko, honela egingo da: ordu-ko soldata arrunta berdin urteko ordainsari gordina zati urteko la-naldia bider ordaindu gabeko egun bakoitzeko ordu kopurua.

#### 17. Ezinbesteko absentzia.

Beren borondatearekin zerikusirik ez duten ezinbesteko arra-zoiak direla-eta lanera joan ezin diren langileek ez dute beren lanpostua galduko, eta eszedentzian, soldatarik gabeko baime-nean edo antzeko egoeran daudela joko da, ordainsaririk jaso-tzeko eskubiderik gabe. Hala ere, lanpostua gordeko zaie egoe-ra horrek irauten duen bitartean eta egoera hori egiaztatzen den bitartean.

e) Cinco días laborables por enfermedad grave u hospita-lización por operación quirúrgica grave, de abuelos o hermanos políticos.

f) Un día natural por traslado de domicilio habitual.

g) Un día natural en caso de matrimonio de hijos, padres y hermanos consanguíneos y políticos.

h) Un día natural por bautizo o por comunión de un hijo y de un nieto.

i) Por el tiempo necesario en los casos de asistencia a con-sulta de Osakidetza, tanto del médico de atención primaria como de especialistas, cuando no sea factible acudir a esas consultas fuera de las horas de trabajo. En caso de asistencia a la consulta del médico de cabecera, el/la trabajador/a deberá presentar el correspondiente justificante extendido por aquél, certificando la efectiva asistencia a la consulta con especificación del horario.

En caso de asistencia a la consulta de un especialista, el tra-bajador o trabajadora deberá presentar la justificación de haber asistido a su consulta, con especificación del horario.

En los casos expuestos en los puntos c), d), y f) el tiempo podrá ampliarse en un día natural si el objeto del permiso supo-ne desplazamiento fuera del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

j) Por el tiempo necesario para concurrir a exámenes ofi-ciales sin que ello suponga reducción alguna de la jornada anual pactada.

#### 16. Permisos sin retribución.

El personal de plantilla, con un año de antigüedad, podrá solicitar permiso no retribuido por asuntos particulares en las siguientes circunstancias:

a) Por enfermedad grave justificada documentalmente o por internamiento en centro hospitalario de cónyuge o compa-ñero/a, hijos, hermanos, padres de uno u otro cónyuge, compa-ñero/a y abuelos por un plazo no superior a tres meses.

Este plazo podrá ser ampliado hasta seis meses cuando a juicio de la Dirección, concurren razones para ello.

b) Por otros motivos personales racionalmente justifica-dos, a juicio de la Dirección, y por un plazo no superior a los 10 días al año.

c) Por motivos personales sin que sea precisa valoración por parte de la Dirección de la causa para la que se solicitan, se concederán automáticamente hasta un máximo de cinco días al año, siempre que se respeten las siguientes circunstancias:

— Tener una antigüedad superior a dos años en la plantilla.

— Solicitarse por escrito con al menos quince días de ante-lación.

— No coincidir más de una persona por cada área de la Fun-dación, ni más del 10 % de la plantilla en el conjunto de las per-sonas trabajadoras.

El personal que se pueda contratar para suplir las bajas de este articulado tendrá carácter interino.

Para el cálculo de la deducción a realizar, se tomará como base el salario hora ordinario igual a la remuneración anual bruta entre la jornada anual por el número de horas de cada día no retribuido.

#### 17. Ausencia por fuerza mayor.

Los trabajadores o trabajadoras que, por causas de fuerza mayor ajenas a su voluntad, se vean imposibilitados de asistir al trabajo, tendrán garantizado el mantenimiento de este, conside-rándolos en situación de excedencia, permisos sin sueldo o simi-lar situación sin derecho a retribución y con reserva del puesto de trabajo mientras persista y se acredite la indicada situación.

#### 18. Baimenak.

— Guraso izatearen ondoriozko baimenak (gurasotasuna).

Langileen Estatutuak eta Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna bermatzeko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatutakoari atxikiko zaio Gertuan Fundazioa.

1. Jaiotzak, zeinak erditzea eta hamabi hilabete baino gutxiagoko haurren zaintza barne hartzen baititu, ama biologikoaren lan-kontratua etengo du 16 astez; aste horietatik, nahitaezkoak izango dira erditu ondoko sei asteak, etenik gabekoak, zeinak lanaldi osoan hartu beharko baitira, amaren osasunaren babesa ziurtatzeko.

2. Jaiotzak ama biologikoa ez den gurasoaren lan-kontratua etengo du 16 astez; aste horietatik, nahitaezkoak izango dira erditu ondoko sei asteak, etenik gabekoak, zeinak lanaldi osoan hartu beharko baitira, Kode Zibilarren 68. artikuluan aurreikusitako zaintza-betebeharrak betetzeko.

3. Umea behar baino lehen jaio bada edo beste edozein arrazoiengatik jaioberriak erditzearen ondoren ospitaleratuta jarraitu behar badu, etenaldia ospitaleko senda-agiriaren egunetik aurrera has daiteke zenbatzen, ama biologikoak edo beste gurasoak hala eskatuz gero. Zenbaketa horretatik kanpo geratzen dira erditzearen ondorengo sei asteak, ama biologikoaren kontratua nahitaez etetekoak.

Erditze goiztiarretan jaioberriak pisu txikiegia badu, eta, edozein arrazoi klinikorengatik, erditu ostean jaioberria ospitaleratu behar bada, zazpi egunetik gorako epealdian, etenaldia luzatuko da, jaioberria zenbat egunetan egon ospitaleratuta eta horrenbeste egunetan, baina gehienez ere hamahiru aste gehigarrietan, eta erregelamendu bidez garatutakoaren arabera.

4. Jaioberria hiltzen bada, etenaldia ez da murriztuko, salbu eta, nahitaezko atsedendikoko sei asteak amaitu ondoren, lanpostura itzultzeko eskatzen denean.

5. Guraso bakoitzari adingabea zaintzeko egingo zaion kontratu-etena, behin erditzearen ondorengo lehenengo sei asteak igaro ondoren, eta gurasoek nahi izanez gero, asteka bana daiteke –metatuta edo etenak hartuta–, erditzearen ondorengo nahitaezko etenaldia amaitzen denetik umeak hamabi hilabete bete arte. Hala ere, ama biologikoak lehenago ere har dezake baimena; gehienez ere, erditzea aurreikusitako eguna baino lau aste lehenago. Aste bakoitza edo, hala badagokio, aste horien metaketa baliatuko dela gutxienez hamabost egun lehenago jakinarazi beharko zaio enpresari.

Langilearen eskubide hori indibiduala da, eta, beraz, ezin zaio beste gurasoari eskualdatu.

Lan-kontratuaren etenaldia, erditzearen ondorengo lehenengo sei asteak igarotakoan, lanaldi osoko edo lanaldi partzialeko erregimenean har daiteke, Fundazioak eta langileak aldez aurretik adostuta eta erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.

Langileak enpresari gutxienez hamabost egun lehenago jakinarazi beharko dio eskubide hori baliatu nahi duela, ezarritako baldintzekin. Eskubide hori baliatzen duten bi gurasoek erakunde berean lan egiten badute, erakundeak eskubidea batera hartzeko mugak jar ditzake, horretarako arrazoi sendoak eta objektiboak badaude. Kasu horretan, idatziz eman beharko die arrazoi horien berri.

6. Semeak edo alabak jaiotzako desgaitasunen bat badu, lan-kontratuaren etenaldia bi aste gehiago luzatuko da, guraso bakoitzarentzat bana.

Luzapen bera aplikatuko da jaiotza anizkoitzetan, lehenengo ez beste seme edo alaba bakoitzeko.

#### 18. Permisos.

— Parentales (maternidad y paternidad).

Gertuan Fundazioa se atenderá a lo regulado en el Estatuto de los Trabajadores y en Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

1. El nacimiento, que comprende el parto y el cuidado de menor de doce meses, suspenderá el contrato de trabajo de la madre biológica durante 16 semanas, de las cuales serán obligatorias las seis semanas ininterrumpidas inmediatamente posteriores al parto, que habrán de disfrutarse a jornada completa, para asegurar la protección de la salud de la madre.

2. El nacimiento suspenderá el contrato de trabajo del progenitor distinto de la madre biológica durante 16 semanas, de las cuales serán obligatorias las seis semanas ininterrumpidas inmediatamente posteriores al parto, que habrán de disfrutarse a jornada completa, para el cumplimiento de los deberes de cuidado previstos en el art. 68 del Código Civil.

3. En los casos de parto prematuro y en aquellos en que, por cualquier otra causa, el neonato deba permanecer hospitalizado a continuación del parto, el período de suspensión podrá computarse, a instancia de la madre biológica o del otro progenitor, a partir de la fecha del alta hospitalaria. Se excluyen de dicho cómputo las seis semanas posteriores al parto, de suspensión obligatoria del contrato de la madre biológica.

En los casos de parto prematuro con falta de peso y en aquellos otros en que el neonato precise, por alguna condición clínica, hospitalización a continuación del parto, por un período superior a siete días, el período de suspensión se ampliará en tantos días como el nacido se encuentre hospitalizado, con un máximo de trece semanas adicionales, y en los términos en que reglamentariamente se desarrolle.

4. En el supuesto de fallecimiento del hijo o hija, el período de suspensión no se verá reducido, salvo que, una vez finalizadas las seis semanas de descanso obligatorio, se solicite la reincorporación al puesto de trabajo.

5. La suspensión del contrato de cada uno de los progenitores por el cuidado de menor, una vez transcurridas las primeras seis semanas inmediatamente posteriores al parto, podrá distribuirse a voluntad de aquellos, en períodos semanales a disfrutar de forma acumulada o interrumpida y ejercitarse desde la finalización de la suspensión obligatoria posterior al parto hasta que el hijo o la hija cumpla doce meses. No obstante, la madre biológica podrá anticipar su ejercicio hasta cuatro semanas antes de la fecha previsible del parto. El disfrute de cada período semanal o, en su caso, de la acumulación de dichos períodos, deberá comunicarse a la empresa con una antelación mínima de quince días.

Este derecho es individual de la persona trabajadora sin que pueda transferirse su ejercicio al otro progenitor.

La suspensión del contrato de trabajo, transcurridas las primeras seis semanas inmediatamente posteriores al parto, podrá disfrutarse en régimen de jornada completa o de jornada parcial, previo acuerdo entre la Fundación y la persona trabajadora, y conforme se determine reglamentariamente.

La persona trabajadora deberá comunicar a la empresa, con una antelación mínima de quince días, el ejercicio de este derecho en los términos establecidos. Cuando los dos progenitores que ejerzan este derecho trabajen para la misma entidad, esta podrá limitar su ejercicio simultáneo por razones fundadas y objetivas, debidamente motivadas por escrito.

6. En el supuesto de discapacidad del hijo o hija en el nacimiento, la suspensión del contrato de trabajo tendrá una duración adicional de dos semanas, una para cada uno de los progenitores.

Igual ampliación procederá en el supuesto de nacimiento múltiple por cada hijo o hija distinta del primero.

— Adingabeak edo beren kabuz balia ezin daitezkeen ahaideak zaintzea.

Legezko zaintza dela-eta, hamabi (12) urte baino gutxiagoko adingabe bat edo ezindu fisiko, psikiko edo sentsoriala (ordaindutako jarduerarik betetzen ez badu) zaindu behar duen langileak lanaldia laburtzeko eskubidea izango du, soldata proportzioan jaitsita. Murrizketa, gutxienez, lanaldiaren zortziren batekoa izango da eta, gehienez, lanaldiaren erdikoa. Eskubide bera izango dute familiako kideren bat zaindu behar dutenek, baldin eta ahaide hori odol-kidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara artekoa bada eta adinagatik, istripuagatik edo gaixotasunagatik ezin bada bere kabuz moldatu eta ez badu ordaindutako jarduerarik egiten.

Asteko zenbaketan legezko zaintzagatiko murrizketa metatzeko eskaerak langilea bere lanpostuan egotea bermatuko du, gutxienez hiru egun astean.

Hileko zenbaketan legezko zaintzagatiko eskaera metatzeko eskaerak honako baldintza hauek bete beharko ditu: kudentzia berari eustea eta langilea bere lanpostuan txandakako asteetan egotea bermatzea; zerbitzuaren funtzionamendu egokirako berme gisa.

Zentroko bi langilek ezin izango dute baimen hori baliatu arrazoi berak eraginda. Lanaldi-murrizketaren ordutegia langileak zehaztuko du.

— Adopzioa eta etxean hartzea:

1. Adopzio, adopzioarako zaintza eta harreraren kasuetan, etenaldia hamasei astekoa izango da adoptatzaile, zaintzaile edo harreragile bakoitzarentzat, Langileen Estatutuaren 45.1.d) artikuluan ezarritakoari jarraituz. Sei aste lanaldi osoan hartu behar dira, nahitaez eta etenik gabe, adopzioaren ebazpen judiziala eman edo adopzioarako zaintzari edo harrerari buruzko erabaki administratiboa eman eta berehala.

2. Gainerako hamar asteak asteka har daitezke, metatuta edo etenak eginda, adopzioaren ebazpen judizialaren edo adopzioarako zaintzari edo harrerari buruzko erabaki administratiboaren osteko hamabi hilabeteen barruan. Adingabe berak ez du, inola ere, langile beraren etenaldi bat baino gehiago izateko eskubiderik emango. Aste bakoitza edo, hala badagokio, aste horien metaketa baliatuko dela gutxienez hamabost egun lehenago jakinarazi beharko zaio enpresari. Hamar asteko etenaldi hori lanaldi osoko erregimenean edo lanaldi partzialeko erregimenean hartu ahal izango da, aldez aurretik enpresa eta eragindako langilea ados jarrita, eta erregelamenduz ezarritakoari jarraituz.

3. Nazioarteko adopzioetan, gurasoek adoptatuaren jatorrizko herrialdera joan behar dutenean aldez aurretik, atal honek kasu bakoitzerako aurreikusitako etenaldia adopzioa eratzeko ebazpena eman baino lau aste lehenago has daiteke.

4. Langile bakoitzaren eskubide indibiduala da, eta, beraz, ezin zaio eskualdatu beste adoptatzaileari, adopzioarako zainatzaileari edo harreragileari.

5. Langileak enpresari gutxienez hamabost egun lehenago jakinarazi beharko dio eskubide hori baliatu nahi duela, ezarritako baldintzekin. Eskubide hori baliatzen duten bi adoptatzaile, zainatzaile edo harreragileek enpresa berean lan egiten badute, erakundeak mugak jarri ahal izango ditu borondatezko hamar asteak batera baliatzeko, horretarako arrazoi sendoak eta objektiboak badaude. Kasu horretan, idatziz eman beharko die arrazoi horien berri.

6. Semeak edo alabak desgaitasunen bat badu, kontratu-etenaldia bi aste gehiago luzatuko da, guraso bakoitzarentzat bana. Luzapen bera aplikatuko da adopzio, adopzioarako zaintza

— Cuidado de menores o familiares que no pueden valerse por sí mismos.

El personal que por razones de guarda tenga a su cuidado alguna persona menor de doce (12) años o a una persona con discapacidad física, psíquica o sensorial que no desempeñe actividad retribuida, tendrá derecho a una reducción de la jornada de trabajo, con la disminución proporcional del salario entre, al menos, un octavo y un máximo de la mitad de la duración de aquella. Tendrá el mismo derecho quien precise encargarse del cuidado directo de un familiar hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad que, por razones de edad, accidente o enfermedad no puede valerse por sí mismo y que no desempeñe actividad retribuida.

La solicitud de la acumulación de reducción por guarda legal en cómputo semanal garantizará la presencia de la persona trabajadora en su puesto de trabajo, al menos tres días semanales.

La solicitud de la acumulación de solicitud por guarda legal en cómputo mensual se sujetará a los siguientes requisitos: que se mantenga una misma cadencia y que se garantice la presencia de la persona trabajadora en su puesto de trabajo en semanas alternas; como garantía para el buen funcionamiento del servicio.

Este permiso no podrán disfrutarlo dos personas trabajadoras del centro por el mismo sujeto causante. La concreción horaria de la reducción de jornada corresponde a la persona.

— Adopción y acogimiento.

1. En los supuestos de adopción, de guarda con fines de adopción y de acogimiento, de acuerdo con el artículo 45.1.d) del Estatuto de los Trabajadores, la suspensión tendrá una duración de dieciséis semanas para cada adoptante, guardador o acogedor. Seis semanas deberán disfrutarse a jornada completa de forma obligatoria e ininterrumpida inmediatamente después de la resolución judicial por la que se constituye la adopción o bien de la decisión administrativa de guarda con fines de adopción o de acogimiento.

2. Las diez semanas restantes se podrán disfrutar en períodos semanales, de forma acumulada o interrumpida, dentro de los doce meses siguientes a la resolución judicial por la que se constituya la adopción o bien a la decisión administrativa de guarda con fines de adopción o de acogimiento. En ningún caso un mismo menor dará derecho a varios períodos de suspensión en la misma persona trabajadora. El disfrute de cada período semanal o, en su caso, de la acumulación de dichos períodos, deberá comunicarse a la empresa con una antelación mínima de quince días. La suspensión de estas diez semanas se podrá ejercitar en régimen de jornada completa o a tiempo parcial, previo acuerdo entre la empresa y la persona trabajadora afectada, en los términos que reglamentariamente se determinen.

3. En los supuestos de adopción internacional, cuando sea necesario el desplazamiento previo de los progenitores al país de origen del adoptado, el período de suspensión previsto para cada caso en este apartado podrá iniciarse hasta cuatro semanas antes de la resolución por la que se constituye la adopción.

4. Este derecho es individual de la persona trabajadora sin que pueda transferirse su ejercicio al otro adoptante, guardador con fines de adopción o acogedor.

5. La persona trabajadora deberá comunicar a la empresa, con una antelación mínima de quince días, el ejercicio de este derecho en los términos establecidos. Cuando los dos adoptantes, guardadores o acogedores que ejerzan este derecho trabajen para la misma entidad, ésta podrá limitar el disfrute simultáneo de las diez semanas voluntarias por razones fundadas y objetivas, debidamente motivadas por escrito.

6. En el supuesto de discapacidad del hijo o hija, la suspensión del contrato de trabajo tendrá una duración adicional de dos semanas, una para cada uno de los progenitores. Igual

edo harrera anizkoitzetan, lehenengoaz bestelako seme edo alaba bakoitzeko.

#### 19. Eszedentzia.

Borondatezko eszedentzia arrunta hartu ahal izango da, Langileen Estatutuaren 46.2 artikuluan xedatutakoaren eta bertan xedatutako ondorioen arabera.

Horrez gain, plantillako langile finko orok, gutxienez hiru urteko antzinatasuna badu, beste borondatezko eszedentzia arrunt bat eskatu ahal izango du, gehienez ere hiru urterako. Eszedentzia hori amaitzean, lanpostura automatikoki itzultzeko eskubidea izango du. Epe hori bost urtera arte luzatu ahal da, Zuzendaritzaren iritziz horretarako arrazoiak badaude. Langile berak ezin izango du eszedentzia-mota hori erabili, harik eta mota bereko azken eszedentzia hartu zuenetik bi urte igaro arte, itzultzen den egunetik zenbatzen hasita.

Eskutatutako eszedentziaren hasierako epea luzatu ahal izango da, zuzendaritzarekin ados jarrita eta ezarritako gehieneko epearen barruan.

Horretarako, eszedentzia idatziz eskatu beharko da, epe zehatza eta tipologia adierazita. Nolanahi ere, hogeita hamar eguneko aurreabisua egon beharko da jakinarazpenaren eta, hala badagokio, eszedentzia hasteko aurreikusitako egunaren artean. Langileak epe eta forma berean jakinarazi beharko du lanera itzuliko dela; bestela, lanera itzultzeari uko egin diola ulertuko da, eta Gertuan Fundazioan baja emango zaio. Eszedentzia-mota horretarako kontratatutako langileak bitartekoak izango dira. Pertsona berak ezin izango du eskubide hori berriz erabili, harik eta lanean berriro hasi zenetik gutxienez bi urte igaro arte, hartutako eszedentzia-aldia amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

#### 20. Ikastaroak.

Gertuan Fundazioak ikastaro espezifikoak egitea sustatuko du, langileek beren lanpostua betetzeko gaitasun handiagoa izan dezaten, eta, ahal duen neurrian, Gertuan Fundazioak langileak mailaz igotzeko aukera izatea ahalbidetuko du.

#### 21. Euskara.

Laguntza ematen diegun pertsonen arreta eta gurekin harremanetan dauden erakundeekiko komunikazioa hobetzeko, eta euskararen erabilera normalizatzeko prozesuan laguntzeko, Gertuan Fundazioak eguneroko lanean euskararen erabilera sustatuko du, betiere erabiltzaileek eta senideek nahiago duten hizkuntzan erlazionatzeko duten eskubidea errespetatuz.

Langileak hautatzeko prozesuetan euskara jakitea baloratuko da, eta hala nahi duten langileek euskara ikastea bultzatuko da, betiere lanorduetatik kanpo. Kasu horretan, Gertuan Fundazioak ikastaroaren % 50a ordainduko du, eta langileak beste % 50a.

Xede horretarako Gertuan Fundazioak dirulaguntzaren bat lortzen badu, dirulaguntzaren zenbatekoa, lehenik eta behin, Gertuan Fundazioak ordaindu beharreko zatia ordaintzeko erabiliko da, eta, hala badagokio, soberakina ikasleari itzuliko zaio. Nolanahi ere, Gertuan Fundazioaren konturako zenbatekoa ezin izango da urteko 5.000 eurotik gorakoa izan plantilla osoarentzat.

Gertuan Fundazioak interes berezia badu langileen batek euskara ikasi edo euskara-maila hobetzeko, Fundazioak ordaindu beharreko ehunekoia banaka negoziatuko da, eta % 100era iritsi ahal izango da, betiere lan-ordutegitik kanpo.

#### 22. Medikuz-azterketa.

Plantillako langile guztiek urtero mediku-azterketa ahalik eta osoena egiteko eskubidea izango dute.

ampliación procederá en el supuesto de adopción, guarda con fines de adopción o acogimiento múltiple por cada hijo o hija distinta del primero.

#### 19. Excedencia.

Se podrá disfrutar de una excedencia voluntaria ordinaria conforme dispone el artículo 46.2 del Estatuto de los Trabajadores y los efectos ahí dispuestos.

Adicionalmente, toda persona trabajadora fija de plantilla con una antigüedad mínima de 3 años podrá solicitar otro tipo de excedencia voluntaria convencional por un plazo máximo de 3 años, que incluirá el derecho a la reincorporación automática a la finalización de esta a su puesto de trabajo. Este plazo podrá ser ampliado hasta cinco años cuando a juicio de la Dirección, concurren razones para ello. No podrá emplearse este tipo de excedencia por la misma persona sino hasta que hayan transcurrido dos años a contar desde la fecha de reincorporación de la última excedencia de este mismo tipo empleada.

El plazo inicial por el que solicita la excedencia podrá ser prorrogado de acuerdo con la dirección dentro del período máximo establecido.

A estos efectos deberá solicitarse por escrito la excedencia con expresión del plazo concreto pretendido y su tipología, debiendo mediar en cualquier caso un preaviso de treinta días laborales entre la comunicación y la fecha pretendida de inicio de esta, en su caso. En idéntico plazo y formalidad tendrá que informar la persona trabajadora de su reincorporación, considerándose en caso contrario que renuncia a su reincorporación y causando con ello baja en Gertuan Fundazioa. El personal contratado a los efectos de este tipo de excedencia tendrá carácter interino. No podrá volver a utilizarse este derecho por la misma persona sin que transcurran al menos 2 años de permanencia en el puesto de trabajo a contar desde la fecha de finalización del período de excedencia disfrutado.

#### 20. Cursos.

Gertuan Fundazioa promoverá la realización de cursos específicos que supongan una mayor capacitación para el personal en el desempeño de su puesto de trabajo y procurará, en la medida de lo posible, su promoción dentro de Gertuan Fundazioa.

#### 21. Euskara.

Al objeto de mejorar la atención a las personas a las que prestamos apoyos, así como las comunicaciones con las Instituciones con las que nos relacionamos, al tiempo que contribuir al proceso de normalización en el uso del Euskara, Gertuan Fundazioa promoverá su utilización cotidiana en el trabajo, siempre respetando el derecho de los usuarios y familiares a relacionarse en la lengua que prefieran.

Valorará el conocimiento del Euskara en los procesos de selección de personal y favorecerá su aprendizaje entre el personal que lo desee, siempre fuera de las horas de trabajo. En tal caso Gertuan Fundazioa asumirá el coste del 50 % del curso, debiendo ser financiado el otro 50 % por la persona trabajadora.

En el supuesto de que Gertuan Fundazioa consiguiera alguna subvención a tal fin, su importe se aplicará en primer término a cubrir la parte cuya financiación asume Gertuan Fundazioa, retornando en su caso el eventual excedente al estudiante. En cualquier caso, el importe a cargo de Gertuan Fundazioa no podrá exceder de los 5.000 euros por año en computo completo de plantilla.

Cuando exista especial interés por parte de Gertuan Fundazioa en que alguna persona trabajadora aprenda o perfeccione su nivel de Euskara, el porcentaje a cargo de la Fundación se negociará individualmente pudiendo llegar al 100 %, siempre fuera del horario de trabajo.

#### 22. Revisión médica.

Todo el personal de plantilla tendrá derecho a una revisión médica anual lo más completa posible.

### 23. *Telelana eta intimitaterako eskubidea.*

1. Hitzarmen honetan urrutiko lanari eta telelanari buruz xedatzen ez den guztirako indarrean dauden legeak aplikatuko dira.

2. Langileek intimitaterako eskubidea dute enplegatzaileak emandako gailu digitalak erabiltzean, baita deskonexio digitale-rako eta bideozaintzako eta geolokalizazioko gailuak erabiltzean intimitaterako eskubidea ere, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruz indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

3. Langileek deskonexio digitalerako eskubidea edukiko dute, legez edo hitzarmenez ezarritako lanaldiaz kanpo bermadakien atsedenaldi, baimen eta oporren errespetua, bai eta norberaren eta familiaren intimitatearen errespetua ere.

### 24. *Guardia-zerbitzua.*

Desgaitasuna duen erabiltzailearen arreta bermatzeko, bai ordutegiaren barruan, bai ordutegitik eta hitzartutako ohiko lanalditik kanpo, Gertuan Fundazioak, espezializazio- eta berehalakotasun-maila desberdinekin, guardia-zerbitzu bat du larrialdi-egoeretarako, urteko 365 egunetan. 12. epigrafean jasotako itunean ezarritako ordutegietatik kanpo ematen da.

Guardia-zerbitzuak esku hartzea justifikatzeko, eskatutako laguntzak bat-batean sortutako, aurreikusi gabeko eta atzeratu ezin diren inguruabarrek eragin beharko dituzte, eta oinarritzko laguntza eta «laguntza pertsonala» ematera mugatuko dira. Ahal den guztietan, edozein erabaki dagokion erreferentziazko teknikariak edo, hala badagokio, guardia-zerbitzuko arduradunak edo Fundazioko zuzendaritzak ondoren esku har dezan bideratuko da.

Guardia-zerbitzuak larrialdi-egoeretan esku hartzea beharrezkoa da, besteak beste, Fundazioak laguntzen dituen pertsonak honako egoera hauetakoren batean daudenean: ihes egitea, atxilotzea, programatu gabe larrialdiz ospitaleratzea eta hiltzea, bai eta pertsonari arrisku larria eragin diezaiokeen eta aurrez aurreko laguntza eskatzen duen beste edozein gertakari ere, aurreikusi ezin delako eta premiazkoa izateagatik.

Guardia-zerbitzua urteko egun guztietan egongo da 22:00ak arte, hitzarmen honen 12. epigrafean jasotako lanaldi eta ordutegietan izan ezik. Beraz, larunbat, igande eta jaiegun guztiak barne hartuko ditu, baita hitzartutako lanaldi eta ordutegien barruko arreta-ordutegia amaitu ondorengo lanegun arruntak ere.

Guardia-zerbitzura atxikitako langileek telefono mugikorra erantzungo dute eta, bitarteko horren bidez, behar diren laguntzak emango dituzte, bereziki kontuan hartuta Fundazioak laguntzen dituen pertsonen izaera, sor daitezkeen premia bereziak eta Gertuan Fundazioak ematen duen zerbitzuaren helburua.

Era berean, eta ezinbestekoa bada, laguntza pertsonala eta presentziala emango dute, laguntza eta babesa emanez eskatzen zaien tokian, eta ahalik eta lasterren joango dira bertara, inguruabarren arabera.

Zerbitzu hori emateko itundutako baldintzak eta konpentsazioak 1. eranskinean daude jasota. Guardia-zerbitzuaren erregistro bat egingo da. Bertan, esku-hartze guztiak jasoko dira, bai telefono bidez egindakoak, bai aurrez aurrekoak, jorratutako gaiak eta horietan emandako denbora adierazita.

Guardia-zerbitzuak arduradun bat izango du, eta bertan guardiako laguntzaileek eta guardiako txanda eman zaienek parte hartuko dute, baita borondatez parte hartzea erabaki duten erreferentziazko teknikariak ere. Zuzendaritzak hala irizten badu, zerbitzu horretan beste arlo batzuetako langileek ere parte hartu ahal izango dute.

### 23. *Teletrabajo y derecho a la intimidad.*

1. En todo lo relacionado con el trabajo a distancia y teletrabajo se estará a lo dispuesto en la legislación vigente.

2. Los/as trabajadores/as tienen derecho a la intimidad en el uso de los dispositivos digitales puestos a su disposición por el empleador, a la desconexión digital y a la intimidad frente al uso de dispositivos de videovigilancia y geolocalización en los términos establecidos en la legislación vigente en materia de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales.

3. Los/as trabajadores/as tendrán derecho a la desconexión digital a fin de garantizar, fuera del tiempo de trabajo legal o convencionalmente establecido, el respeto de su tiempo de descanso, permisos y vacaciones, así como de su intimidad personal y familiar.

### 24. *Servicio de guardia.*

Para garantizar la atención de la persona con discapacidad usuaria tanto dentro como fuera del horario y de la jornada laboral ordinaria pactada, Gertuan Fundazioa dispone con diferente grado de especialización e inmediatez de un servicio de guardia para situaciones de urgencia los 365 días al año. Siendo aquel que se presta fuera de los horarios establecidos en el pacto recogido en el epígrafe 12.

La naturaleza de los apoyos, que para justificar la intervención del servicio de guardia habrán de tener su causa en circunstancias sobrevenidas, imprevisibles e inaplazables, se limitarán a los indispensables de atención y «acompañamiento personal», trasladando siempre que sea posible cualquier decisión a la posterior intervención del/de la Técnico Referente a quien corresponda el caso concernido o, en su caso, de la persona Responsable del Servicio de Guardia y/o de la Dirección de la Fundación.

Entre las situaciones que hacen necesaria la intervención del servicio de guardia para situaciones de urgencia se encuentran las de fuga, detención, hospitalización de urgencia no programada y fallecimiento de las personas que apoya la Fundación, así como cualquier otro acontecimiento que por su imprevisibilidad y urgencia pueda suponer un grave riesgo para la persona y requiera de un apoyo/acompañamiento presencial.

El servicio de guardia cubrirá todos los días del año hasta las 22:00 h, salvo la jornada y horarios comprendidos en el epígrafe 12 de este convenio, incluyendo por consiguiente todos los sábados, domingos y festivos, así como los días laborales ordinarios tras la finalización del horario de atención comprendido dentro de la jornada y horarios pactados.

